

## INESA GAXEN SORGINTZAT HARTUA

Hondarrbian, 1611. urteko maiatzean, beste zenbaiten artean, sorgintzat hartu zen Inesa Gaxeni buruzko poema bat dakar argitara berri den *Hatsaren poesia*. Olerki bilduma deritzan 2. aleak, "Akelarrea Jaizkibelen (Oi Gaxen...)" izenburuz. Bere egilea Juanma Sarasola dugu. Berak dioenez: "Nere idurikotz, poesia, kezka, sentimendu eta ametsen adierazpide bat da, barne musikalitatez eta erritmoz hornitua".

Eta hara zer dioen olerki horretan:

### AKELARREA JAIZKIBELEN (OI GAXEN...)

Adar hautsiak krask!!  
itzurika txoria,  
akelarrera guaz  
badugu tenoria,  
zenbat piper eta gatz!

ukendu ta belarrez  
denok maitasun gosez  
larrutan, dantzan farrez...  
sorgiñen biltzarre  
Jaizkibelen akelarre...

Oi Gaxen, oi Gaxen  
aidian zaittugu sumatzen...

Tenoria da  
tenorez gaude  
illargipean  
gaur akelarre!

Lar guziaren gaintikan,  
hore guzien azpitikan

Oi Gaxen, oi Gaxen  
aidian zaittugu sumatzen...

Harpeen babesean gaude  
ta irriyo onduan

KAFETEGIA



GOZOTEGIA

San Pedro 10  
Tel. 943 64 10 47  
20280 HONDARRIBIA

Arroka-Berri

ERRETEGIA



Higer bidea  
Tel. 943 64 27 12  
20280 HONDARRIBIA

sorgiñak kontten dire  
 dantzan su inguruan  
 sentimenduak libre  
 dantzan nahi den moduan  
 pozik gaude gu ere  
 ilbetia zeruan  
 gure buruaren jabe  
 edota kaosa buruan...

Oi Gaxen, oi Gaxen  
 aidian zaittugu sumatzen...

Eta azpian beste honako ohar hau dakar: "Inessa Gaxen, XVII mendean Inkisiziokoek Hondarribia erre zuten, "Sorgiña" zelakoan".

Polita da akelarrearen olerki hau, baina esan beharrean dut, ez Gaxen eta ez sorgintzat hartu zituztenetarik inor ez zutela erre Hondarribian.

*Hondarribia* (1995) aldizkari honetako 62. zenbakia-  
 ren 24-25 orrialdeetan idatzi nuen "Sorgiñak Hon-  
 darribian?", Jaizkibel mendiko Santa Barbaran egi-  
 ten zen akelarreari buruzko artikulua, sorgin-ihiza  
 ere aipatuz.

Inesa Gaxen, izatez, Baxenafarreko Bastida herrikoa zen. Garai hartako beste zenbait emakume bezala, mugazandik Pierre d'Landre zeritzanak 1608an eratu zuen sorgin-ihizari ihesik etorria nonbait eta, hemen ere, handik zetozten emakumeengan sortu zen sorgin susmoa.

Florentino Portu zenak Hondarribiko Artxibategian sorgineri buruz aurkitu zituen agiriak argitaratu zituen *Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* (1975) deritzan liburuetan 61-74. orrialdeetan. Bertan irakur daitekenez, Inesa Gaxenek behin eta berriz ukatu zuen leporatzen zitzaion sorgintza. Eta hondarribiarrak ez zetozten bat Logroñon zen Inkisizioko Epaitegiarekin.

Hala ere, batzuk hara eraman beharra izan zuten. Baina, Frantzia partekoak, E. Porturen liburuko 72. orrialdean argi eta garbi esaten den bezala, beraien lurraldera eraman zituzten, han uzteko. Inesa Gaxen ere, beste gabe, batel batean Hendaiara eraman eta han utzi. Horregatik, argi utzi nahi dut, Juanma Sarasolaren olerkari ametsen baizik ez dela Gaxen erretzea.

JUAN SAN MARTIN



Menaje  
 Industrial  
 Electricidad  
 Copia de llaves  
 Tornillería inoxidable

**MARINEL**

Burdindegia  
 Ferretería

Beñat Etxepare 12  
 Tel. 943 64 17 88  
**20280 HONDARRIBIA**

## Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45      Tel. 943 64 44 70  
**20280 HONDARRIBIA**